



❖ GELDITOUR - ABIADURA HAUNDIKO TRENAREN KONTRAKO FURGONETA IBILTARIA

Bizikleta martxak emango dio jarraipena trenaren kontrako aldarrikapenei

Atzo pasa zen Hernanitik Abiadura Haundiko Trenaren kontrako furgoneta ibiltaria. Trenaren inguruko aktibitateak izango dira aste osoan zehar, Gazte Asanbladak antolatuta.

ATZO pasa zen Hernanitik Euskal Herrian barrena dabilen Gelditour furgoneta. Abiadura Haundiko Trena gelditzeko aldarrikapena eta informazioa zabaltzea ditu helburu. Ekimena Euskal Herriko talde, alderdi eta sindikatu ezberdinek osatzen duten AHT Gelditu! Elkarlanak antolatu du eta asmoa da AHTk ze-harkatzen dituen herrietatik pasatzea.

Hernanira atzo arratsaldean iritsi zen, Plazara, eta arratsalde osoan zehar bideoak eta panel informatiboak izan ziren kamioiaren bueltan. Gaur Lezo eta Oretxa aldera abiatuko da. Larunbatean Donostiarra iritsiko da eta bertan jaialdia eta manifestazioa izango da.

Bizikleta martxa gaur

Gelditour ekimenaren bueltan Gazte Asanbladak AHT-



Abiadura Haundiko Trenaren inguruko panelak ere jarri zituzten, Plaza.

ren kontrako astea antolatu du. Gaur bizikleta martxa aterako da, arratsaldeko 19:30etan, Gaztetxetik. Bihar Hernaniko AHTren kontrako taldeko kide batek hitzaldia

emango du, Biterin, ordu berean.

Ostegunean, AHTren kontrako parodia izango da, arratsaldeko 18:00etan herrian berrera; eta 19:30etan, apeadero-

an kontzentrazioa.

Ostiralean, AHTren kontrako manifestazioa aterako da, Plazatik. Gauero 22:30etan Trifulka eta Ania-ren kontzertua izango da. //

TELEFONIAK • **Taxiak:** 943 550093 • **Udalzaingoa:** 943 248900 • **DYA:** 943 464622 **Autobusak:** Herri barruko: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 • **Anbulatorioa:** 943 006666 • **Jokalari anonimoak:** 943 331103 • **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103 • **FARMAZIAK** • **Egunez:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 • **Gauzez:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA

GAUR Ipar haizea ibilko da eta tenperaturak berera egingo du. Gainerakoan eguraldi antzekoa egingo du, baina arratsalde partean euri dezente botako du.

BIHAR Berriro ere ekaitz giroa izango da. Ostarteak eta zaparradak tartekatuko dira. Mendebaldeko haizea ibilko da eta tenperaturak gora egingo du.
(euskaraiet)



Aranora oinez, gaur 25garren aldiz

GAUR Arano aldera oinez abiatuko da Parrokiko lagun talde bat. Urteak dira ibilaldi hau egiten dutela, baina koadrilako bi kiderentzat gaur-

koa bereziagoa izango da, izan ere, Juan Jose Arregik eta Lourdes Aipuruak gaur 25garren aldiz egingo dute Aranora ibilia.

Hori dela eta zorionak eman nahi izan dizkiete eta opa diete urte askotan jarrai dezatela irteeran parte hartzen. //

◆ PRESO BATZORDEA

Amnistiaaren Aldeko Mugimenduko inputatuak babesteko testuak oniritzia jaso zuen

Gobernu taldearen aldeko botuekin egin zuen testuak aurrera. EAJ eta EBk aurka bozkatu zuten eta PSE-EE, EA eta PP ez ziren batzordean izan.

PRESO Batzordea izan zen joan den astean eta bertan herritar batek aurkeztutako testua aztertu eta eztaba aidatu zen. Testuak funtsean Udalerri eskatzen dio Amnistiaaren Aldeko Mugimenduaren kontrako epaketan inputatutako pertsonei babesera emateko, bereziki Hernanin bizi den J.M. Olanori; eta baita Espainiako Audientzia Nazionala desagertzea exijitzeko.

Testuak batzordearen oniritzia jaso zuen, Gobernu taldeko kideen aldeko botuarekin. Batzordean izan ziren Ezker Batuko eta EAJ-PNV alderdiko kideek aurka bozkatu zuten. PSE-EE, EA eta PP alderdiko kideak ez ziren batzordean izan.

Errepresioa
Oniritzia jasotako testuak «azken 30 urteetan espainiar eta frantziar estatuen errepresioa»

sioa» salatzen du sarreran.

Hernaniren kasuan errepresioa latza izan dela aipatzen du testuak: «atxilotuak, inkomunikatuak, torturatuak, espetxeratuak, dispersatuak, gaixo egon arren espetxean mantendu dituztenak, bizi arteko espetxe zigorrera kondennatuak, deportatuak, exiliatuak, gerra zikina pairatutakoak, hildakoak, poliziaren boritzkeria jasandakoak...».

Egoera horren aurrean errepresioaren kontrako borroka piztu dela ere aipatzen du eta lan hori egiten duten milaka herritar Amnistiaaren Aldeko Mugimenduan antolatuta daudela.

Horrekin batera dio Espainiar Estatuak Amnistiaaren Aldeko Mugimendua desagarrazi nahi duela «herri honi errepresioa mugarik gabe ezartzeko». Udalari honako puntuen

alde egiteko eskatzen zaio:

- «Babes eta elkartasun osoa adieraztea epaketan inputatuak dauden pertsonei eta bereziki J.M. Olanori».

- «Epaketan sortuko diren gastuei aurre egiteko diru lagunza ematea, epaketan inputatutako pertsonei»

- «Espainiar justiziaren bidez kriminalizatu nahi dituzten AAM-ko erakundeek beraien lan politiko eta soziala egiteko zilegitasun osoa dutela, eta orain arte bezala, elkarlanean jarraitzeko borondate osoa dugula».

- «Amnistiaaren Aldeko Mugimendua epaitzen duten honetan, udalbatza hau ere epaitua sentzen dela, mugimendu honetako eragileek planteatutako hainbat konpromiso gure gain hartu izan ditugun heinean».

- «Euskal Herritarren aurka jarduteko expresuki sortua den Audientzia Nazionalaren desagertza exijitza».

◆ KARBONERA

Txikiri buruzko dokumentala bihar

Haizea eta Sustraiak izeneko dokumentala proiektatutako dute bihar Karboneran, Txikiren senitarteko eta lagunen testigantzak biltzen ditu eta baita migrazioaren fenomenoaz hitz egin ere. 20:00etan, Karboneran. //

◆ ZIKLOTURISTAK

Ohiko zauriei buruzko hitzaldia ostiralean

Zikuñako Ama zikloturista taldeak antolatuta, hitzaldia izango da ostiralean, txirrindulariek egiten dituzten zauriei buruz hitz egingo du Xabier Sansinaneak, eta azalduko du hauek nola tratatu. 20:00etan, Biterin. //

◆ ERAKUSKETA

Elkano 17 emakume zentroko eskulanak

Elkano 17 emakume zentroan kurtsoan zehar egindako lanen erakusketa ikusteko aukera izango da ostirala bitartean, 16:00etan 20:00etara, Biterin //

◆ ZABALETAKO JAIAK

Jaien hasiera gaur

Zabaleta auzoko jaiak hasiko dira gaur. Arratsaldeko 18:00etan eskulanak egiteko aukera izango dute haurrek; 19:30etan anterkia izango da eta 20:00etan japoiniar bonbak botako dituzte. Jaiak igandera arte luzatuko dira. //

◆ GALDUTAKOAK

Kotxeko giltza agertu da Portun

KIA markako kotxeko giltza agertu zen atzo Portu auzoan. Giltzatako Celta de Vigo taldeko eskudoa da. Giltzak Udaltzaingoan utzi dituzte. //

‘Border Collie’ txakur bat galdu da Martindegin

Border Collie arrazako txakur bat galdu zen atzo Martindegin. Txuri Gorria da eta koilarerik ez du. Inork ikusiko balu deitu telefono honetara: 610 28 91 06. //

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Pixua salgai Hernanin. 3gela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefazio zentrala eta igogai luarekin. Deitu: 620 82 35 15.

Elgoibarko Gaztelekuaren udaleku itxieta (Mendigorria, uztailak 9tik 16ra) joateko heitzalea behar da (kontratu) Tfnoa: 943 74 32 28 (Argitze) edo gazteleku@elgoibar.org

Sukalderako laguntzailea behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuek deitu: 635 746 559

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, 60 m2ko garbala eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (urreketik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexología. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskauntza. Froga dohainik. Atzieta 2, beheha. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajuste eta bertebral, kromoterapia, drainaje linfátiko... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegia tratamendua, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexología, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)